

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1360

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 5koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Plus Europako Gizarte Funtsaren 2021-2027 Programaren esparruan Europako Gizarte Funtsak kofinantzatu beharreko eragiketak hautatzeko deialdian aurreikusitako balioespen-batzordearen osaera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Plus Europako Gizarte Funtsaren 2021-2027 Programaren esparruan Europako Gizarte Funtsak kofinantzatu beharreko eragiketak hautatzeko. deialdiaren 7. artikulua (2024-01-12ko EHAA), prozedura eta ebazpena arautzen dituenak, 2. apartatuan ezartzen du, eskabideak aztertu eta ebaluatze aldera, Balioespen Batzordea bat sortuko dela.

Batzorde hori honako lanpostu hauek osatuko dute:

- Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria, edo, haren orde, hark eskuordetutako persona.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria, zeinak, berdinketarik badago, kalitatezko botoa izango baitu.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazio eta Inklusioko zuzendaria, edo, haren orde, hark eskuordetutako pertsona.
- Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzan profil teknikoa duten bi pertsona, horretarako izendatuak.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari-profila duten bi pertsona; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu.
- Berdintasun-teknikari bat.

Aipatutako deialdiaren 7. artikulua araber, ebaluazio-batzorde hori da behin-behineko ebazpen-proposamena egiteko arduraduna.

Era berean, deialdiaren 7.2 artikulua dioenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpen proposamena egiteko ardura duten organoen osaera, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.2.a) artikuluan aurreikusitako publikizitate-printzipioarekin bat etorriz.

Hori guztia ikusirik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Aditzera ematea ebazpen honetan aipatzen den deialdiaren 7. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera:

Batzordeburua:

– Maria Teresa Martínez Granada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria.

Idazkaria:

– Maria Jesús Martínez Benavides, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikaria.

Bokal titullarrak:

- Juan Alberdi Alberdi, Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen zuzendaria.
- Enrique José Ramos Vispo Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria.
- Sara Buesa Rodriguez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazio eta Inklusioko zuzendaria.
- Francisco Javier Antón Murillo, Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzako teknikoa.
- Eider Zabala Uribeetxeberria, Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzako teknikoa.
- Javier Pascual Palomar, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikaria.
- Aranzazu Ancizar Periañez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Berdintasun-teknikaria.

Ordezko bokalak:

- Claudia Etxebarria Lizaso, Eusko Jaurlaritzako Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzako teknikoa.
- Itziar Prieto Ibarondo, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da batzordeburua eta idazkaria eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Batzordeburua ez badago, bokaletako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurren-keran.

Idazkaria ez badago, bokaletako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeraren alderantzizkoan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria,
MARÍA TERESA MARTÍNEZ GRANADO.